

aire
garbiak
bira
nazan



SANTIXABELAK
2026

gehigarri berezia

LASKO
TXARANGA



Bidaiatu Konpainia onean.



Tel.: +34 943 36 32 90
www.autocares-aizpurua.es



Ondo pasa
Santixabeletan!!



ERRAUSKETARIK EZ
LURRA BASERRIA HERRIA
BIZIRIK

ALKARTASUNA
Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba

Atallu industrialdea 26 943 36 11 14 alkartasuna@usurbil.com www.alkartasuna.eus

JAI BATZORDEA: “SANTIXABELAK ZAINZAILAK IZATEA NAHI GENUKE”

Jai batzordeak aditzera eman duenez, “adin tarte eta zaletasun ezberdinak” asetzen saiatu da, Usurbilgo festen antolakuntza lanei zegokienean ekainaren 17an, uztailaren 1etik 5era biziko dugun ospakizun zikloari lotuta Mikel Laboa plazan eginiko jendaurreko aurkezpen ofizialean.

Azken urteon ildotik, aurten go “Santixabelak zaintzaileak izatea nahi genuke”, adierazi zuten jai batzordetik. Horren erakusle, adibide gisa, uztailaren 3ko txu-txu tren arrakastatsua lehenerbitzu ordua Eguneko Zentroko eta Eguneko Arreta zerbitzuko erabilitzaileentzako eskainiko dela.

Horrez gain, Usurbilgo joaldunak ere bueltan izango ditugu festen azken goizean. Kalezarko zaintzadun etxebizitzaren auzunetik, Egurtzegitik abiatuko dira, azken urteotan egin izan duten moduan. Horrekin batera, jai batzordeko kideek aditzera eman zuten, “adinekoen gustukoak izango diren ekitaldiak haientzako egokiak diren orduetan jartzen saiatu gara; bai bertso saioa, bai mariatxiak edota Tapia eta Leturiaren emanaldia, besteak beste”.

Azkenik, jaietarako giroa hasteko, ekainaren 29an, Iñaki Agirresarobe herrikideak jaietako argazki zaharren emanaldia eskainiko du Sutegin; zehazkiago esanda, 1984-2024 urte arteko herriko festetako irudien bilduma.

Ordu lasaiak

Jai zaintzaileagoak izateko bidean, azken urteotan eman den beste urrats baten berri segidan. Usur-



Ekainaren 17an agerraldi jendetsu batean aurkeztu zuten aurtengo egitaraua.

JAI BATZORDEA

“Adinekoen gustukoak izango diren ekitaldiak haientzako egokiak diren orduetan jartzen saiatu gara. Bertso saioa, mariatxiaren kontzertua edota Tapia eta Leturiaren emanaldia”

bilgo jaietan bada eremu bat, ospakizunen aldia gaintzen duena. Lehenago datoz, eta geroago joaten dira. Anbulatorioko ondoko aparkalekuan kokatu ohi duten feriaguneari buruz ari gara. Egunotan bertan aparkatu ohi duenak, ibilgailua ezingo du ohi bezala bertara eraman eta utzi, gaztetxo eta ez hain gaztetxoekin jaietako jolas-par-

kean bilakatzea doa eta. Urtero moduan, adi, bi egunez, uztailaren 3ko Haurren Egunean zehar, nahiz festak amaitu eta biharamunean, hilaren 6an prezio bereziak izango dituzte bertan. Jai batzordeak berri eman duenez, iazko prezioak bere horretan mantenduko dira gainerako egunetan.

Horrez gain, azken urteon ildotik, ordu lasaiak ezarriko dituzte jolas-parke horretan. Bi egunez izango da, Santixabel Egunez, uztailaren 2an, 19:00-20:30 artean eta larunbat eguerdian, 12:00-14:00 artean. Ordu tarte horiek, musika zein argi bizirik gabekoak izango dira.

Ez da soina murrizturiko ekimen bakarra izango. Ildo horretan kokatu izan du jai batzordeak, baita jaien amaiera ekitaldia ere; azken traka, jaietako zaindaria sustan birrintzen den unea ospakizun arrakastatsuan bilakatu ohi duena hain zuzen.

KONPARTSA BERRITUAK URTEA BETE DU, HERRI NORTASUNARI ESTUAGO LOTUA

Lauburu Usurbilgo Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa non, hantxe erakartzen du belau-naldiarteko jendetza. Buruhandiak historikoki Usurbilgo herri eta auzo guztietako jaietan ikusi ahal izan ditugun arren, iaiztik konpartsa gisa, erraldoi eta buruhandi talde berri-tuarekin plazaratzen hasi ziren herri bilguneak Udalarekin adostu eta sinaturiko lankidetzak hitzarmenaren testuinguruan. Iazko herriko festetan aurkeztu zituzten, aurten bueltan izango diren buruhandi berriak ere.

Iazko festen denboralditik orain arteko denbora tarteak igaro dute itzalpean, baina berriaz plazaratzeko unea heldu zaie. Haien nahiz erraldioen xehetasunen berri ematen aritu dira azkenaldian sare sozialen bidez; batzuk ezezagunak zirenak orain arte. “Gure erraldoi eta buruhandiak prest daude kalera irteteko!”, iragarri du Lauburuk.

Bueltan izango ditugu datozen uztailaren 1etik 5erako herriko jaietan, “90. hamarkadan Irungo Garate etxeak” sortu eta 2016an berritutako bi erraldoiak; Ixidro baserriarren zaindaria eta herriko zaindariari gorazarre egin nahi dion Ixabel. “Izenik gabe egon ziren urte luzez”, gogorazi digute Lauburu konpartsa-koek. Baina deskribatu moduan, “egun badute nortasun propioa” eta izena ere bai. Hartara aiton-amon deitzeari uzten lagunduko digute izenok.

Aipatu konpartsa-koek xehetasun gehiago ere eskaini dituzte haien izanari buruz. “Landa eremutik herrira hurbiltzeko ohitura handia zuten bere produktuak saltzera eta jai giroaz gozatzera”. Xehetasunok



Lauburu Usurbilgo Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa jaietan murgiltzeko irrikitan dago.

LAUBURU KONPARTSA

“Gure erraldoi eta buruhandiak prest daude kalera irteteko”

Lauburu konpartsak argitu duenez, “herriko nekazal jardueraren pisu nabarmenaren adierazle dira oraindik bizirik eta jardunean dirauten hainbat baserri”.

Aukeratzen lehena

Horrekin batera, Usurbilgo herri eta auzoetako jaietan lasterkaldi bizi askoak eragingo dituzten tximu, deabru, pailazo edota akerra berriz bueltan izango dira. Baina haiekin, iaiz ikusmin itzela eragin eta estreinakoz, Usurbilgo jaien hasiera ekitaldian aurkezturiko buruhandi talde berria ere bueltan izango dugu. Gogoan izan, sei dira, seiak herri honen nortasunari, ogibideei estuki lotutakoak. Haien artean da, nola

LAUBURU KONPARTSA

“Buruhandi berriak herri honen nortasunari, ogibideei estuki lotuta daude”

ez, basurdea, “Usurbilgo ikur berezia!”, Lauburu konpartsa-ko kideen esanetan, “buruhandi talde berria diseinatzerakoan hauxe izan zen aukeratzen lehena”. Zergatiak azalpen askorik behar ez duen arren, ezaguna denez, “gure armarrarian ageri da eta herriko basoekin eta naturarekin lotura estua du”. Horrekin batera, “urteetan zehar, herriko sinbolo ere izan da, talde ezberdinen irudi izateraino. Letagin zorrotz eta belarri tentekoa, beldurra eta jakin-mina pizten ditu aldi berean”.

Aginagako Mapil aldetik itzuliko zaigu bigarren buruhandia datozen jaietan. Bertako arotzak “irudikatzen du hiru lanbideetatik lehena: zurgintza eta ontzigintza or-

dezkaria da bera". Garai hartako artisauak omenduko ditu, soinean ekarriko dituen laneko jantziekin. Berak ontzigintza bizi asko zegoen garaiko Aginagara eramango gaitu.

Mapileko arotzak ez du urruti izango aharia, herri honen garai bateko ohitura oroitarazten lagunduko duena; ahari borrokak hain zuzen. "Bi ahariaren arteko talketan oinarritutako jokoak ziren eta plazak jendez betetzen ziren" iazko mende hasieran hain zuzen, azaldu dute Lauburu konpartsatik. Adi, iragarri dutenez, "mutur adar handikoa, gure aharia aurrean jartzen den edonor baztertzeko prest dago!".

Ahariaz gain, oilarra ere badu buruhandi talde berrituak, "herriko jai giroko protagonista nagusia" dena. Izan ere, leku gutxitan eusten

dioten ohitura zahar bati lekua ematen jarraitzen dio herri honek. "Oilasko biltzea gabe, nekez ulertzen dira Usurbilgo jaiak". Oilarrak giro hori irudikatzen du. "Trikiti doinuen eta festazaleen artean ihesi dabilen oilarra" da, konpartsakoen esanetan.

Errotaria eta angularia

Iazko estreinalditik bueltan izango dugunon artean da, emakumezko errotari gaztea, "Usurbilgo ondarearen zati garrantzitsu" gisa definitzen duena Lauburuk. Izan ere, "garai batean, errotak ezinbestekoak ziren". Belaunaldiz belaunaldi transmititutako familia giroko ogibidea "garia eta artoa xehatzeko" baliatzen zen. Errotarren harria, "Andatza menditik ateratzen zen".

Berarekin etorriko da berriz bai-



Erraldoiak "herriko nekazal jardueraren pisu nabarmenaren adierazle dira".

ta Aginagako erriberako angularia. "Aginagako angularak gure kulturaren parte eta ikur dira. Bertako jende askok jardun izan du lan" ogibide horretan.



Ane

ILEAPAINDEGIA

Artzabal

JUBILATUENTZAKO
AUKERARIK
HOBERENA

ARTZABAL BASERRIA 688 75 96 96

“FESTETAN EZ AHAZTU NORBERAK ETXETIK EDALONTZIA EKARTZEA”

Datozen festetan ospakizun giroan murgiltzeko geurekin eramane beharreko ezinbesteko bi elementuak zeintzuk diren gogorarazi zizkigun jai batzordeak, ekainaren 17an eginiko herri aurkezpenean. Bertan bildu dira, jaien antolakuntza lanetan parte harturiko eragileak. Bakoitza antolaturiko ekimenaren ispilu izan daitekeen janzkerarekin edo osagarriekin plazaratu zen; Lauburu konpartsak bere erraldoi eta buruhandiak kale-ratu zituen, pilota txapelketakoak edota herri kiroletako lehiakideak haien hitzorduetarako prest jantzita etorri ziren...

Denek, ordea, bi elementu amankomun zituzten; batetik, le-pokoa, koadrodun zapi ezaguna, eta bestalde, agerraldiaren amaieran erakutsitako edalontzi berrera-bilgarria, nork bere etxetik ekarria.

Horretara gonbidatu gaituzte gainerakoak. “Primerako festak ditugu ate joka eta herritar guztiok gonbidatu nahi ditugu koadrodun zapia jantzi eta festetan parte hartu eta ondo pasatzera”, egin dute deia jai batzordetik. Horrez gain, honako oharra ere plazaratu nahi izan zuten; “aurtego festetan ez ahaztu norberak etxetik edalontzia ekartzea”.



Jaien aurkezpen ekitaldian, edalontzi berrera-bilgarria erabiltzeko deia egin zuten.



Ondo para Santixabeletan

MIZPURUA OKINDEGIA

**OGIAK
GOZOGINTZA
TARTAK
ARDOAK**



Festetan zure mahaia ondo hornitu nahi baduzu, gurean baduzu aukera!

KALE NAGUSIA, 25 • 943 36 12 20



ANDATZA TABERNA

EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK


8:00-23:00 Igandetik Ostiralera

8:00-00:00 Larunbatetan

**Sukaldea 22:00etan ixten da*

Kalezar Auzoa 12, 0B, USURBIL 943732027

Ondo pasa
festetan!



A P A R I C I O

MARGO LANAK

Tel. 943 36 60 59
628 883 943

Puntapax, 3 - 3.B
20170 USURBIL



entzun



sortu



diseinatu

gora
Santixabelak



inprimatu



gerturatu

guztia
leku
berean

1987tik
euskara eta
euskal kultura
sustatzen



antza

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

Zirkuitu ibilbidea 2, 1-2 Pab.
LASARTE-ORIA (Gipuzkoa)
info@antza.eus
© (0034) 943 370 738
www.antza.eus

UMEEN EGUNERA ERAMAN BEHARREKOAK

Uztailaren 3a izango da gaztetxoenei zuzenduriko egun nagusia. Hilabeteotan ekimen sorta hori prestatzen aritu da guraso taldea. Egunpasa horri, ohi bezala, udaletxe aurreko ereserkiarekin ekingo zaio. Gero, ekainaren 21a baino lehen izena emandako LH1-4 artekoek ginkanan parte hartu ahalko dute eta erronkan LH5-DBH2 artekoek.

Ekintza horiei begirako pare bat ohar plazaratu dituzte antolatzaileek asteotan. Batetik, "partehartzaile guztiak koadrodun zapia ekarri beharko dute, elkarrekin Haurren Eguneko abestia kantatu ondoren,

jolasetan parte hartzeko". Bestalde, ginkanako parte hartzaileek kolore hauetako kamiseta jantzita agertu beharko dute: LH1ekoek urdina, LH2koek berdea, LH3koek txuria eta LH4koek morea. Bai ginkanan baita erronkan parte hartuko dutenei aldatzeko arropa ekartzea gomendatzen diete antolatzaileek.

Aipaturikoez gain, hitzordu gehiago ere izango dituzte gaztetxoek, uztaileko lehen ostiralean; txiki-entzako puzgarriak, txutxu tren arrakastatsua, edota txokolate janak, ur puzgarriak, apar festak eta Kaktus Djak girotuko duen arratsalde pasa Artzabalen.



Uztailaren 3an, koadrodun zapia janzteko deia egin dute.

Ondo pasa
Santixabeletan!

ARANKA
BERRIKUNTZAK

- Fatxaden estaldurak ·Estalkien berriztatzeak
- Barruko berrikuntzak ·Gremioen koordinaketa
- Igeltseritza orokorra

ARGILAN ELEKTRIZITATEA

Elektrizitate instalakuntzak
eta mantenimenduak

- Instalakuntza elektrikoak ·Argigintza
- Energia aurreztea ·Atezain automatikoak
- Kontadoreen zentralizazioa...

943361380 - 629272859



Bordaberri 5, Usurbil

ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

EGUNEKO MENUA
EGUNEKO PLATERA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK
PINTXOAK

ONDO PASA
FESTETAN!

Zumartegi poligonoa, USURBIL 943 371 150

SANTIXABELAK 2026

UZTAILAK 1-5

SANTIXABELETAKO MENUA

- Urdaiazpiko iberikoa
- Artzabal entsalada
- Otarraixkak plantxan

BIGARRENA AUKERAN

- Entrekota plantxan
- Ahate konfitatua
- Lupia labean

AZKENBURUKOA

Labeko gazta tarta



34€

EDARIA APARTE

ARTZABAL
BASERRIA • JATETXEA

943 369 139
ERRESERBAK GOMENDATZEN DIRA!

PUNTAPAX 8,
20170 USURBIL
artzabaljatetxea.eus

DANTZA GIRO BIZIAN DATOZKIGU JAIK

Gauetz nahiz egunez, koadrodun zapia jantzi eta dantza giro bizian plazaratzeko aukera eskainiko digute Usurbilgo jaiek.

Azken urteotan errotzen doa, jaietara ekiteko izaten diren bi txupinazoen artean izaten den herri kalejira. Udaletxeko ekitaldiaren ondotik, lehen aldiz plazaratu ohi da Lauburu Usurbilgo Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa. Haiekin nahiz Zumarteko musikariekin, eta iaz, estreinakoz baita Orbeldi dantza taldekoekin egin zen herri barruko festen abiatzeko bira. Herri izaera duen hitzordura edonor dago gonbidatua.



Argazkian, Orbeldik ikasturtea agurtzeko ekainaren 18an eginiko dantza-poteoa.

Orbeldi aipatuta, segidan, herriko dantza taldeak frontoian festetako emanaldia eskainiko du. Izan ere, hilaren 18an agurtu zuen ikasturtea herri erdigunean barrena eginiko dantza poteoarekin. Baina agur hori egin orduko

murgildu da uda parteko Usurbilgo herri eta auzoetako festen biran. Hainbat erakustaldi egingo dituzte udako ospakizunetan. Hilaren 20an Kalezarren aritu moduan, uztailean 1ean Usurbilgo jaietan ikusiko ditugu.

Elexpe
deapaindegia

- BETILEEN TINTAKETA
- BETILEEN PERMANENTEA
- ESTETIKA
- TATUAIK
- ZUTIKAKO ETA
- ETZANDAKO SOLARIUM-A



MUNA LURRA 12. USURBIL - 943 370 462

Ondo pasa festetan!

G Auto Guria s.l



Auto Konponketa

Pre I.T.V.

Marka guztiak

KONFIDANTZAZKO TAILERRA!

☎ 943 363 298 Zelai-haundi 11, Osinalde Pol. USURBIL

edaritegia BORDATXO

Pintxo bereziak

Bokatak

Plater konbinatuak

*ondo pasa
Santixabeletan!!*

Zubiaurrenea, 5. ☎ 943 37 10 42

Ondo pasa
Santixabeletan!



Iturraldebotika

Tomas Iturralde botika

33/22 PEZ.

Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua Dermofarmazia

Produktu homeopaticoak Maisu formulak



Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

www.iturraldebotika.com

IÑAKI AGIRRESAROBE: “DIAPOR

Lehen hezkuntzako irakaslea da, baina zaletasunez argazkilaria. Urteetan zehar jaietan argazkiak ateratzen ibili da, eta zuen artxiboari irtenbidea emateko jaietako diaporama bat egitea bururatu zaio.

Nola eta non gordetzen dira hainbeste urtetako argazkiak?

Iñaki Agirresarobe: Argazkiak ez dira urtez urtekoak, saltoak daude hamarkada batzuetan. Lehenik eta behin, 1984tik 1997 ingurura negatiboetan gordeta nituen, eta horiek digitalizatzea erabaki nuen. Horretarako, digitalizatzeko makina bat eskuratu nuen, eta neuzkan negatibo guztiak digitalizatu nituen. Gero ordenagailura pasa nituen.

Nola hasi zinen jaietan argazkiak ateratzen?

Zaletasuna batxilergoan etorri zitzaidan. Argazkigintza ikastaroa genuen, eta mundua deskubritu nuen. Beti festak antolatzen ibili naiz jai batzordean. Garai hartan gutxi ginen argazkilaritzan zaletuak ginenak, eta tarteka, udaletxetik bildumak egiteko eskatzen zidaten, gehienbat, antolatzailerak nintzelako.

Zure artxiboko argazki guztiak ikusiko dira ala aukeraketa bat?

Hiru ordulaurdenekoa egin dut, jendea ez dudalako nazkatu nahi. Nik nuen programarekin hirurehun eta piko argazki sartu zitezkeen, bakoitzari hamar segundo eskainiz, jendeak haien artean ere komentatu ditzan. Diaporama musikatua izango da, eta gehienbat aurpegiak ateratzen diren argazkiak izango dira. Ohituretan izan



Ekainaren 29an astelehena, 'Santixabeletako argazki zaharren diaporama 1984-2024' eskainiko du arratsaldeko 19:00etan Sutegin.

IÑAKI AGIRRESAROBE

“Diaporamak, ohituretan izan diren aldaketak ikusteko balioko duela uste dut”

diren aldaketak ikusteko balioko duela uste dut.

Argazkiak azalduko dituzu?

Ez. Musikatua denez, hasieran sarrera txiki bat egingo dut jendea kokatzeko, eta amaieran galderarik baldin badute erantzungo ditut. Diaporaman zehar ez dut hitz egingo.

Iaz, Kalezarren egin zenuen argazki erakusketa bat, nola joan zen?

Uste baino jende gehiago etorri zen. Emanaldia atzeratu behar izan genuen jendea etorri eta etorri ari

baitzen, eta aretoa goraino beteta egon zen. Sorpresa bat izan zen niretzat hainbeste jende ikustea. Batzuk hunkituta atera ziren, falta ziren senitartekoak ikusi baitzituzten.

Iazko esperientziak aurtengo Usurbilgo jaietako animatu zaitu?

Bai. Esan zidaten orain dela hamar urte inguru, horrelako zerbait egin genuela artxiborako, eta ni ez nintzen gogoratzen. Eta nik ez nuela egingo esan nien, ez errepikatzen. Hala eta guztiz ere, egiteko eskatu zidaten. Batzuk agian argazkiak ikusita dituzte, baina ez dator gaizki gogoratzea.

Egun batean bakarrik eskainiko duzu?

Bai. Izan ere, azken hiru-lau urteetan jaien aurretik ohitura bihurtu da Usurbilekin zerikusia duen zerbaiten erakusketa egitea girotzeko.

RAMA MUSIKATUA IZANGO DA”



“Hiru ordulaurdeneko diaporama egin dut, jendea ez dudalako nazkatu nahi”. Argazki hau 2002. urtekoa da.



“1984tik 1997 ingurukoak negatiboetan gordeta neuzkan, eta horiek digitalizatzea erabaki nuen”. Argazki hau 1984koa da.



“Argazkiak ez dira urtez urtekoak, saltoak daude hamarkada batzuetan”. 1995ean atera zuen irudi hau.

HILABETEOTAKO ISILPEKO LANKETA

Negu betean zirela, otsailean ekin zion jai batzordeak aurtengo festen antolaketa lanei. Bilgune horretan hartu ohi dira gai horri lotutako erabaki guztiak. Bilgune irekia da, eragile eta norbanako orok parte har dezake, aurtengoan bezalaxe.

Otsailean eginiko lehen bileran erabaki zuten Usurbilgo jaiak uztailaren 1ean hasi eta 5ean amaituko zirela. Saio berean hasi ziren egitaraua definitzen. Ordutik hilabeteotan eginiko lanketaren emaitza aurkeztu zuten jendaurrean, ekainaren 17an Mikel Laboa plazan eginiko ekitaldian.

2024an ekin zioten festak jendaurrean aurkezteari. Hirugarren aldia zuten honenbestez, iragan astekoa. Ekitaldiak aurreko hilabeteetan lau hormen artean eginiko lanketa eza-gutarazi eta batzordeari ikusgarritasuna ematen dio. Hilaren 17an, Zumarteko trikitilariekin kalejiran heldu ziren agerraldi lekura, askotariko eragileak ordezkatu eta guztiak biltzen dituen jai batzordeko kideak. Plazan zain zituzten, Lauburu konpartsako kideak; erraldoiekin eta zenbait buruhandirekin.

“Bi aste besterik ez zaizkigu geratzen, Santixabeletarako! Konturatu al zarete? Bi aste!”, hala hasi zuen jai batzordeak bere agerraldi herrikoia. Zertarako elkartu ziren gogorarazi zuten segidan. “Hementxe bildu gara festak antolatzen ibili garen jai batzordeko kideak zer prestatu dugun aurkezteko, berotzen hasteko festen atari honetan”.

Hemezortzi hautagai

Ordura arte isilpean izandako datorren jai asteari buruzko xehetasunak eskaini zituzten. Ahalik eta



Uztailaren 3an Tapia eta Leturia taldeak girotuko du iluntzeko erromeria.

OMENDUAK

Zubietako Lanbide Eskola eta Usurbil FT taldea omenduko dituzte aurten

herritar gehienak festa giroan murgiltzeko moduko ospakizun zerrenda prestatu dute. Gautxorientzako musikaz blaitutako bost gau izango dira, herri sorkuntza oholtzaratuko duen Bertsio Gauetik hasi, Usurbilgo Izan bai taldearen kontzertuarekin segi edota udalerrri honetatik kanpo ere ezagunak diren talde entzutetsu gehiagorekin amaitzeraino; Bele, Bide Batez, hainbat dj... Egunez ere ez da faltako musikaririk, elektrotxaranga taldeekin edota azken urteotan frontoia dantza batean jarritako Tapia eta Leturia Band taldekoekin. Herrikideak ikusiko ditugu parte hartzen nahiz herria girotzen; Or-beldikoak dantzan, herri kiroletan bi usurbildar talde lehia bizian, Umeen Egunean ere egun osoz guraso taldeak antolaturiko ekimenen erdigunean izango da belaunaldi gaztee-

na. Horrez gain, oilasko biltzaileak, Gazte Eguna, zikiro jana... Etenik gabeko bost jaiegun datozkigu.

Bi eragile

Hasteko, iaz, 40 urte betetako bi eragileek abiarazi zituzten Usurbilgo jaiak; Zumarte Musika Eskolak eta Ziortza Gazte Elkarteak. Aurten beste biek emango diete hasiera; kasu honetan, mende erdia, 50 urteko ibilbide oparora osatu duten Zubietako Lanbide Eskolak eta Usurbil F.T.-k. Honenbestez, bi eragileotako ordezkariak igoko dira uztailaren 1ean udaletxeko balkoira, arratsaldeko 19:00etan izango den jaien abiatze ekitaldiko txupinazoa jaurtitzera.

Jai batzordeak aurten ere deialdi irekia plazaratu du, Usurbilgo jaiak hasiera nork edo nortzuk eman erabakitzeko. Gogoan izango duzuen moduan, telematikoki emailaz proposamenak egiteko aukera izan zuten herritarrek baita udal instalakuntza hainbatetan jarritako kaxetan idatziz hautagaiak zehaztu eta hautaketaren zergatia azaltzekoa ere. Apirilaren 21etik maiatzaren 19ra izan zen hori.

Herriko festen antolakuntza tal-

PLAZARATU DU JAI BATZORDEAK

dean bildutako norbanako eta eragileen arabera, 63 bozka eta horien artean, hemezortzi proposamen jaso zituzten. Horien artean hautatu du jai batzordeak aurten ere bi izateak, bost eguneko ospakizun zikloari ekingo dioten eragileak; Zubieta Lanbide Eskola eta Usurbil F.T.

Bitan elkarrekin

"Aurten, 50 urte betetzen dituzte biek. Biek herritar ugari biltzen dituzten eragileak dira. Lan piloa egin dute urte hauetan guztietan. Aitor-tza modura, urte hauetan egindako lanari omenalditxoak egiteko erabaki dugu haiek izatea txupinazioa bota behar dutenak", jakinarazi zuen Mikel Laboa plazako hitzorduan, Jon Mikel Azpiazu kultur arloko zinegotziak.

Bitan ikusiko ditugu elkarrekin Zubieta Lanbide Eskolako eta Usurbil F.T.-ko kideak. Aitortza bikoitza egingo zaiei biei. Batetik, aipatu moduan, uztailearen 1eko festen hasiera ekitaldian jasoko dute herriaren berotasuna. Baina horrez gain, urtero, biharamunean, uztailearen 2an, jaien egun nagusian, udal ordezkarrien soka-dantza izaten da. Urtero, eragile bat edo gehiago gonbidatzen dituzte hitzordu horretan parte hartzera. Aurtengoan, txupinazoko bi omenduak izango dira soka-dantzara batuko direnak. "Beraz, omenaldiz beteak izango dituzte festak", jai batzordetik aurreratu dutenez.

Hiru diseinu lan

Usurbilgo jaiak prest dira mamiz, baita itxura aldetik ere. Izan ere, otsailean biltzen hasten da jai batzordea eta jaiegunak finkatzearekin batera hasten dira bilgune horretan batzen diren norbanakoak eta eragileak egitaraua lantzen. Bi



Haira Rivero Arrieta, jai batzordekoekin batera, aurtengo kartela erakusten.

EPAIMAHAIAREN IRITZIA

"Kolore biziak eta mezu osagarriak" dituelako hautatu dute Haira Rivero Arrietaren diseinu lana

lanketa bide jorratzen dituzte; batetik edukiari dagokiona. Jai batzordeak Potxoenean eginiko bileretan joaten dira adosten, zehazten zer ekintza, noiz, nola txertatu egitarauan.

Paraleloki, ordea, txupinazioa nork jaurti erabakitzekeo herritarrei hitza ematen dien moduan, jai batzordeak lehiaketa ireki bidez hautatzen du Usurbilgo jaien berri ematen digun euskarri nagusiak, egitarauak izan beharreko itxura. Aurtengoan ere, Usurbilgo jaien hasiera ekitaldirako ekarpenak biltzeko finkatutako epealdi beraren baitan, hau da, apirilaren 21etik maiatzaren 19ra diseinu lanak aurkezteko gonbita egin zieten herritarrei. Tarte horretan, hiru sorkuntza lan aurkeztu direla jakinarazi zuen jai batzordeak, ekainaren 17an, Mikel Laboa plazan

eginiko herriko jaien aurkezpen ekitaldian.

Eskuragarri

Proposamenak aztertu ondoren, bat hautatu behar zuen epaimahaiak. Uztailearen 1etik 5era izango ditugun hitzorduen berri ematearekin batera jakinarazi zuten, nor izan den aurtengo egitarau diseinu lehiaketako irabazlea. Albiste honi atxikitako irudian duzue, Haira Rivero Arrieta izan da.

600 euroko saria jaso zuen herri-kideak aurkezpen ekitaldian bertan, antolatzaileen eskutik. Jai batzordeko kide Eider Goenagak azaldu zuen epaimahaiak zergatik hautatu duen Rivero Arrietaren sorkuntza lana. "Epaimahaiak aurreko urteetako egitaraua desberdina izatea hartu du kontuan, festa girokoa izatea, kolore biziak izatea eta mezu osagarriak argi adieraztea, besteak beste".

Egitaraua ekainaren 18an hasi ziren banatzen etxez etxe. Telematikoki ere eskura daiteke usurbil.eus nahiz usurbilkultura.eus atarietan. Paperean nahi izatekotan, Artzabalgo eta Santueneako zahar egoitzetan, udal liburutegian, Potxoenean edota Oiardon jaso ahalko da.

“KOLORE PRIMARIOAK ERABILI DITUT, ESENTZIARA BUELTATZEKO”

Izatez diseinatzailea barne diseinua ikasi baitzuen, baina masterra diseinu grafikoan egin zuen. Dena den, orain hezkuntzan dabil lanean.

Lehenengo aldia al da jaietako egitaraua diseinatzeko lehiaketan parte hartzen duzula?

Haira Rivero Arrieta: Duela urte asko, ikasle nintzela, Dantza Egune-ko kartela egin nuen. Festetako egitarau lehiaketan beste behin hartu nuen parte duela urte batzuk, baina ez nuen irabazi. Aurten, ideia bat okurritu zitzaidan, eta ideia horrekin aurrera egin nuen.

Nola bururatu zitzaizun ideia?

Ni Txirikordan bizi naiz, eta zaintzaren ekosisteman nago sartuta, herriko zaintza talde batean ere sartuta nago. Orduan, zaintzaren begirada horrekin okurritu zitzaidan festak beste ikuspuntu batetik ere ikustea daudela.

Eta zein da ikuspuntu hori?

Etxe barruetatik ikusten dena, agian, kanpora atera ezin duenaren ikuspuntua. Kartelean ikusten dena. Leihoetatik zer ikusten den jaietan azken finean. Nahiz eta gu ez konturatu leiho horien atzean jende asko dagoela, eta kalearen bizitza ikusteak bizipoza ematen diela.

Lehiaketa irabaztea espero zenuen?

Nire amak esaten dit askotan, zerbait sortzen duzunean badakizula ona, txarra edo erdipurdikoa den. Nik banekien ideia ona zela. Kolore aldetik ere kolore primarioak erabili nituen esentziara bueltatzeko; hain-



“Zaintzaren begiradarekin, festak beste ikuspegi batekin ere ikusi daitezke”.

HAIRA RIVERO ARRIETA

“Etxeetako leihoen atzean jende asko dago, kaleko giroa ikustean bizipoza hartzen duena. Ikuspuntu hori hautatu dut”

beste kolore eta interakzio dugun mundu honetan oinarrira bueltatzeko. Ni gustura geratu nintzen diseinuarekin, eta esperantza banuen egia esan.

Irabazlea zinela esan zizute-nean, zer sentitu zenuen?

Pozik sentitu nintzen. Hondartzan nongoen, eta lasai-lasai harrapatu zidaten. Dei bat jaso nuen, eta Maite zela esatean banekien zer-

tarako zen deia. Iaz ni epaimahai-kidea izan nintzen, eta banekien data horietan zerbait jakin behar nuela. Zain nongoen ea deia jasotzen nuen ala ez.

Sekretua gorde duzue ala ingurukoei esan diezu irabazlea zarela publiko egin aurretik?

Hasieran ez nuen asimilatu eta ingurukoei esatea kosta zitzaidan. Familiari segituan esan nion, eta lagunei pixkanaka esan nien, ez dakit zergatik. Baina ikusiko dute ni naizela irabazlea.

Eta urduri zaude publiko egiten denean jendeak nola hartuko duen ikusteak?

Pixka bat bai. Azken finean, zerbait sortzen duzun momentuan jendeak epaitzeko eskubide hori dauka, eta egingo du.



Aurtengo irudi irabazlea, Hairak egina.


Ondo pasa
festetan!

G15
AGRUPIACIÓN
DE INMOBILIARIAS
DE GIPUZKOA




HIGIEZINA | INMOBILIARIA
ONENA AURREZ AURRE!

**SALEROSKETA
& ALOKAIUA**



 **688 739 733**

 **Etxebeste Kalea, 15**
Usurbil, Gipuzkoa

 g15usurbil.eus

 info@g15usurbil.eus

 **Iñaki
Iturgintza**

Ondo pasa
festetan!!!

- BEROKUNTZA • GASA
- AIRE EGOKITUA
- ZORU BERO-EMALEA
- ITURGINTZA
- ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

600 024 825

info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com

Ondo pasa
festetan!

guria

taberna

PLATER KONBINATUAK,
HANBURGESAK, ENTSALADAK,
OGITARTEKOAK, RAZIOAK, PIZZAK...

PUNTAPAX 12, USURBIL 943 55 93 35


ITZIRA
ERRIKUNTZAK

943 530 337
772 818 206

Ondo pasa festetan!

•gremioen koordinaketa •berritze lanak
•sukaldeak •komunak •mota guztietako obrak
•aurrekontua konpromisorik gabe

errekatxiki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

BIZIKLETA-KANABERA LEHIAKETA

Iazko egitarauan ez zetorren iragarria, baina harrera bikaina izan zuen. Bizikleta-kanabera lehiaketaz ari gara. Uztailaren 2an antolatu dute ekimenaren bigarren edizioa.

Une hura bizi izandakoek gogoan izango dute, ziur. Bi lagunek bizikleta gainean txosnen eremuari itzuli bat ematen diote. Amaieran, aurreko laguna bizikleta gidatzen ari den artean, atzekoak eskuartean duen kainabera txosnen parean den zintzilarioan sartzean datza ekimenak. Punteria fin askoa, iaotasun nabarmena agertu zuten parte hartzaile batek baino gehiagok. Ea aurtengoan zer gertatzen den. Aurretik, herri honetan belaunaldi bat baino gehiagoren-



Punteria fina behar da bizikleta-kanabera lehiaketan aritzeko.

gan erroturiko jolasa berreskuratuko dute lehiaketa moduan; "auntoke" izenez ezaguturikoari buruz ari gara. Txosnen ondoko biribilgunean egin-

go da, egun berean, LH 3-6 mailen artean ikasitakoentzat. Euskal selekzioaren aldeko ekimen gisa aurkeztu dute antolatzaileek.

TXAPELDUN

SANTIXABEL MENUA

Urdaiazpiko kroketak
Ahuntz gazta entsalada
Onddo pastela bere saltsan

Aukeran:

- Katxopoa patata eta piperrekin
- Txerri sahieskia temperatura baxuan barbakoa saltsarekin
- Begi handia bere tintan eta patata hostopilarekin

Postrea:

- Platano eta pistatxozko browniea
- Gazta tarta edo izozkia

TXAPELDUN

ARDANGELA
943 49 88 83

Uraitz, S.L.

*Ondo pasa
Santixabeletan!!*



**Igeltseritza
Orokorra**

Telefona

**693 05 93 92
943 56 66 40**

uraitz@uraitz.com

Hipodromo etorbidea 10, LASARTE-ORIA

URDAINTZI

eraikuntzak



649 43 54 75

943 36 72 64

ERAIKUNTZAK

OBRAK

BERRITZE LANAK

**IT-ak egiten
dira**

*Ondo pasa
Santixabeletan!*

urdaintzi@euskalnet.net

INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO BI BALIABIDE JAIOTAN

Indarkeria matxista jasandako emakumeei eta LGTBIQA+ pertsoneri behar duten arreta eta babesa ematea helburu duen jai nahiz aisialdi guneetako eraso matxisten aurreko jarduketa protokoloa landu zuten 2019an. Iaz eguneratu eta indartu zuten elkarlanean Udalak, mugimendu feministak, gazte mugimenduak, herri nahiz auzoetako jai batzordeak.

Aurten, batetik, indarkeria matxistaren aurkako informazio gunea jarriko dute Mikel Laboa plazan uztaillaren 3an eta 4an, 21:00-00:00



Aurten, eraso matxisten inguruko protokoloan sakontzeko formazio saioa egin da.

artean. Egun horietan arreta puntua egokituko dute Gaztelekuak, 00:00-06:00 artean. Leku seguruak dira, eraso biktima dena lasai senti ahal izateko, "jai edo aisialdi guneetatik aparte, eta aldi berean

eskura dauden lekuak. Giltza atean egongo da, kutxa batean, eta kutxa irekitzeko kodea txosnetan eskatu ahal izango da: biktimak artatzeko ezarritako lekuak izanik, arduraz erabiltzera deitu dituzte herritarrek".

**MIKEL
ARRANDEGIA**

MIKEL ARRANDEGIA

Ondo pasa Santixabelak!

San Inazio, 1 • ☎ 943 366 356

mur
errotuluak

Ondo pasa Santixabeletan!!

Ibilgailuak - Erakustokiak - Lonak
Argidunak - Inpresio digitala

943 36 60 21 - USURBIL
puntapax kalea 6 A-B

murerrotuluak@gmail.com



USURBIL
OPTIKA

2x1

PROGRESIBO,
URRUTIKO
ETA GERTUKO
BIGARREN
LENTE PAREA
DOANI!

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com



Otar-Goxo

ONDO PASA SANTIXABELETAN!

Behi txuketa, txahal entrekota,
txuleta kostilla eta abar, eta ez
ahaztu gure prestatuak:
OSATU ZURE MENUAK!

ESKAERAK: 943 36 55 81  677 64 27 76
otargoxo@gmail.com



Patrienea Jatetxea
Bazkariak. astelehenetik igandera
Afariak. ostirala eta larunbata

Ondo pasa
Santixabelak!

Patrienea

kale nagusia 14. **USURBIL**
t **943 362 725** - 688 690 361



harteles

Antenak, LTD eta satellite
Antenas, TDT y satélite

Atezain eta bideo atezainak
Porteros y video porteros

Bideo-zaintza
Videovigilancia

harteles@harteles.eus / 629 121 355

NOAUA! GEHIGARRI BEREZIA

egitaraua

Ekainak 29, astelehena

- 19:00 'Santixabeletako argazki zaharren diaporama 1984-2024' Sutegin.

Uztailak 1, asteazkena

- 06:00 Oilasko biltzaileen gosaria eta irteera, txosnetatik abiatuta.
- 11:00 Kolore Festa frontoian.
- 14:00 Oilasko biltzaileen itzulera eta bazkaria.
- 18:30 Jaixkipe txaranga kiroldegitik abiatuta.
- 19:00 Txupinazoa eta ikurrinaren igoera, Usurbil Futbol Taldearen eta Zubieta Lanbide Eskolaren eskutik.
- Ondoren, herri kalejira.
- 20:00 Herriko dantzariak frontoian.
- Jarraian, gazte txupinazoa eta txosnen irekiera.
- 22:30 Bertsio Gaua txosnetan.

Uztailak 2, osteguna

- 09:00 Esnadeia txistulariekin.
- 11:00 Txistulariak eta lore banaketa Egurtzegin.
- 12:00 Soka dantza Joxe Martin Sagar dia plazan.
- Jarraian, lore eta salda banaketa.
- 12:00 Triku taldearekin kalejira.
- 16:00 Mus txapelketa Askatasuna plazan (izen ematea 15:30-16:00).
- 17:00 LIII. Esku pilota txapelketako finalak.
- 17:00 Diskofesta Gaztelekuan.
- 17:00 Euskal Selektzioaren Aldeko "auntoke" Txapelketa Mikel Laboa plazan. (LH 3tik LH 6ra bitarteko gazte-txoentzat) Izen ematea: 16:30.
- 19:00 Bertsolariak Joxe Martin Sagar dia plazan: Amets Arzallus, Jone Uria, Maddi Ane Txoperena eta Xabat Illarregi.
Gai jartzailea: Maite Berriozabal.
- 19:30 Bizikleta-kanabera lehiaketa txosnetan.
- 21:00 Erromeria frontoian: Bide Ba-tez.



Herriarren arteko herri kirol lehia uztailaren 4an jokatu da.

- 23:00 Kontzertuak txosnetan: Aingura, La Furia eta Siwanaba DJa.

Uztailak 3, ostirala

- 09:45 Haur eta gazteei harrera Joxe Martin Sagar dia plazan.
- 10:00-13:00 Txikientzako puzgarriak frontoian.
- 10:00-12:00 Ginkana (LH 1etik LH 4ra).
- 10:00-12:00 Gaztetxoentzako erronka (LH 5etik DBH 2ra).
- 10:30-11:30 Txutxu trena. Eguneko zentroa eta Artzabalgo helduak.
- 11:00-13:00 Toka txapelketa, botea eta Santixabel Igel Jokoa Artzabalen.
- 11:30-13:30 Txutxu trena Bordatxo aurretik.
- 12:30 Buruhandi eta erraldoiak.
- 13:30 Umeen bazkaria Artzabalen (norberak ekarrita).
- 14:00 Jubilatuen bazkaria Atxega Jauregian.
- 14:30 Gazte bazkaria txosnetan.
- 15:30-17:30 Txutxu trena Bordatxo aurretik.
- 15:30 Ur puzgarriak eta apar festa Artzabalen.
- 18:00 Txokolate jatea eta Kaktus DJa Artzabalen.

- 18:00 Xaukena elektrotzaranga txosnetatik abiatuta.

- 20:00 Tapia eta Leturia Band frontoian.

- 23:00 Kontzertuak txosnetan: The Lio, 48280 eta Moskato DJa.

- Gutxien uste duzunean, Platano Dantza.

Uztailak 4, larunbata

- 12:00 Elektrotzaranga.
- 12:30 Herri kirolak. Herriarrez osatutako bi talde lehia: txinga, trontza, aizkora, korrika, zaku eramatea, giza proba eta harri jasotzea.
- 14:00 Zikiro jana Askatasuna plazan.
- 18:00 Sutargi erromeria txosnetan.
- 18:00 Errekortariak eta sokamuturra Udarregin.
- 19:00 Buruhandi eta erraldoiak.
- 20:00 Laskotzaranga.
- 23:00 Frontoian: Izan bai, Bele.
- Jarraian, kontzertuak txosnetan: Bad Sound eta Fifi eta Fefa DJa.

Uztailak 5, igandea

- 07:00 Kita del Pare txaranga txosnetatik abiatuta.
- Ondoren, gaupaseroen argazkia.
- 09:00 Esnadeia trikitilariakin.
- 10:00 Puzgarriak zezen plazan.
- 11:00 Joaldunak Egurtzegitik abiatuta.
- 18:30 Buruhandi eta erraldoiak.
- 18:30 A toda madre mariatxiak Artzabalen.
- 18:30 Paella lehiaketa txosnetan (izen ematea: 18:00).
- 23:00 Maskota erretzea eta traka Dema plazan.
- Jarraian, Enaitz eta Erkizirekin erromeria txosnetan.

Jaietan zehar

- Zirriborro tailerrekoen eskulanak ikusgai Sutegiko aretoan.

TXIRIBOGA

TABERNA

SANTIXABEL FESTETAN:

Asteazken gaua - Ostegun eguerdia
Ostiral gauetik igande eguerdira

MENU BEREZIAK AUKERAN:

49€

51€

53€

Ondo pasa
Santixabeletan!


943 21 88 40

IRAZU KALEA 6, USURBIL

ZENDOIAENEA

taberna

Ondo pasa
Santixabeletan!



NAGUSIA 35, USURBIL

Ordutegi gehiago
eskuratu nahi badituzu,
NOAUA! eta udaletxean
aurkituko dituzu.

Deskargatu ezazu
www.noaua.eus
webgunetik edo
eskaneatu QR kodea
zure mugikorrarekin!

TREN ETA AUTOBUS ORDUTEGIA

25/26



noaua

Aguirrezabal Estankoa

Ondo pasa
Santixabeletan!

kale Nagusia, 27.

☎ 943 361 110



SANTIXABELAK 20 26

